

Tipi

Kanpo espazioen
eraldaketa
proposamena
Orioko Herri Ikastola

Kanpo espazioen eraldaketa proposamena

Aurkibidea

- 1. HH eta LHko kanpo espazioak [3. pág.](#)
 - 1.1 Eremuaren definizioa
 - 1.2 Eraldaketarako abiapuntua
 - 1.3 Eraldaketarako erronka orokorrak
 - 1.4 Eraldaketarako erronka eta baldintza espezifikoak
 - 1.5 Eraldaketa proposamena

- 2. DBHko kanpo espazioak [22. pág.](#)
 - 2.1 Eremuaren definizioa
 - 2.2 Eraldaketarako abiapuntua
 - 2.3 Eraldaketarako erronka orokorrak
 - 2.4 Eraldaketa proposamena

Tipi


Kanpo espazioen
eraldaketa
proposamena

1. HH eta LHko
kanpo espazioak

1.1 Eremuaren definizioa

HH eta LH eraikinen inguruko kanpo espazioak lau eremu nagusitan banatzen dira: HHko ikasleen jolasgunea, eta LHko ikasleek erabiltzen dituzten plazoleta, iparraldeko patioa eta pergola eta frontoiaren eremua.

Eremuen antolaketa eta erabilerari dagokionez, HHko ikasleek eremu bera erabiltzen dute beti, baina HHko ikasleei dagozkien hiru espazioek errotazio sistemaren bitartez funtzionatzen dute. Hori horrela, etapa bakoitzak astebetez erabiltzen du eremu bakolta.



1.2 Eraldaketarako abiapuntua

Espazioen eraldaketa planteatzean, jolasorduaren egungo antolaketa eredia mantenduko dela hartu dugu abiapuntutzat, hots, asteroko errotazio sistema mantenduko dugula eta taldeak etapaka banatzen jarraituko direla espazioen arabera.

1.3 Eraldaketarako erronka orokorrak

Errotazio sistemaren bitartez funtzionatzen den heinean, interesgarria da eremu guztiek zenbait baldintza komun betetzea, ikasleek aste oso ematen baitute eremu berean. Espazio bakoitzean aniztasuna eta oinarritzko baldintza komun batzuk bilatze aldera, erronka komun batzuk formulatu ditugu eremu guztietan betetzeko helburuaz.

Erronka horiek hurrengoak dira:

1/ Aniztasuna

Jarduera aniztasuna ahalbidetzen duen eremua lortu nahi dugu, lasai egotea, mugimendu handiko jarduerak egitea eta jolastea ahalbidetzen duena.

Izaera propioa daukan eremua lortu nahi dugu, gainontzeko eremuekiko izaera ezberdina duena eta berezi egiten duena.

2/ Jolasa

Adin ezberdineko umeentzako jolaserako elementu edo baliabideak eskaintzen dituen eremua lortu nahi dugu, jolasgarritasuna jolas-elementu finkoen bitartez, materialtasunaren bitartez, jolas-materialen bitartez edo altzari/elementuen bitartez bilatuz.

3/ Konforta

Erosoa eta atsegina den eremua lortu nahi dugu, goxoa dena, euriarengandik babesteko aukera ematen diguna, eta baita bero handitik ere.

4/ Naturalizazioa

Naturaren presentzia handiagoa duen eremua lortu nahi dugu, berdegune, landaredia eta zuhaitz gehiago dituen.

1.4 Eraldaketarako erronka eta baldintza espezifikokoak

Plazoleta

Tokiaren baldintzak

- Orientazioa: hego-ekialdea
- Eguneroko erabiltzaile nagusiak: HH eta LH ikasleak, eta familiak
- Arratsaldeetan plaza bezala erabiltzen da eta familien bilgune da
- Astean behin merkatua egiten da hemen

Espazioarentzat definitutako erronka espezifikokoak

A/ Konplexutasuna

Espazioa konplexuago bat lortu nahi dugu eta "eszenatorki-logikarekin" apurtu nahi dugu, estrategia ezberdinak baliatuz: guneak ezberdintzea, materialtasuna lantzea, giro ezberdinak sortzea etab.

B/ HHko umeen jolasa

HHko ikasleek jolastu ahal izateko gune bat aurreikusi nahi dugu, kontuan hartuz beraientzako eremu espezifikoa bat jada badagoela orain dela urte gutxi eraikia.

D/ Gune estalia

Gune estali berri bat sortu nahi dugu, ulertuz eremuaren antolaketa asko baldintzatuko duen elementua izango dela.

Pergola eta frontoia

Tokiaren baldintzak


- Orientazioa: hegoaldea
- Eguneroko erabiltzaile nagusiak: LHko ikasleak
- Eremua HHko gunearekin ikutzen da puntu batean
- Pergola zirkulazio askodun gunea da: sarrera-irteerak ditu perimetro osoan zehar, bi eraikinen arteko komunikazio gunea da, gurasoen eguneroko itxaron-gunea da etab.
- Eremuan bi gune oso bereizitu daude: bata pergola, itxita dagoena perimetroan eta estalkiarekin; eta bestea frontoia, izaira zabaltzen dena eta eguzkitzapen asko jasotzen duena.

Iparraldeko patioa

Tokiaren baldintzak

- Orientazioa: iparraldea
- Eguneroko erabiltzaile nagusiak: LHko ikasleak
- Eremu bat bat espaloia da
- eraikin pareko eremuan ez du inoiz eguzkiak ematen

1.5 Eraldaketa proposamena



Hurrengo orrialdeetan planoan irudikatutako elementu eta eremuetan proposatu dena azaltzen da. Zenbaki bakoitzeko gunearen deskribapen orokorra eta erabilera nagusia azaldu dira, eta beharrezkoa izan denean, irudien bitartez antzerako elementuen edo espazioen erreferentziak gehitu dira.

Iparraldeko patioa

1

Iparraldeko patioaren zati handi bat itzalpean dago beti. Ondorioz, eguzkiak jotzen duen eta berdegunearen parean dagoen leku honetan eserlekuak jarri nahi dira ikasleak eseri ahal izateko, eta baita gurasoak ere arratsaldean umeekin daudenean.

2

Toki honetan ez da inongo esku-hartzerik aurreikusi, iparraldeko patioaren zati hau ikasleek korrika egin eta jolasean libreki mugitzeko leku bezala aurreikusi baita.

3

Lekuak daukan kota aldaketa aprobeztatzuz, jolaserako eta mugimendurako aukera ezberdinak ematen dituzten elementuak aurreikusi dira hemen. Igo eta jeisteko aukera ematen dutenak, eta baita azpian ezkutatu eta gordetzeko balio dutenak.

Itzalpean dagoen lekua izanik, mugimendurako espazio bezala proiektatu da.



Sarrera eremua

4

Eremu honetan ikastolarako sarrera gune egoki bat proposatu da. Ikasleen patineteentzako aparkalekua eta gaur egun dagoen berdegunea kendu eta lekuaren banaketa eta diseinu berri bat egin nahi da.

Eserlekuak eta begetazioa dituen gune bat, sartzeko bide nagusirako igarobidea errespetatuko duena, eta eserita eta itxaroten egoteko atsegina eta eroso izango dena.



Frontoia eta pergolaren eremua



5

Eremu honetan dagoen berdegune txikian berau zeharkatzeko ibilbide bat egitea proposatu da. Funtzio bikoltza edukiko luke:

- Belargunea zeharkatzeko paso izatea, gaur egun iskina batetik igaro behar delako txakur kakak direla eta.
- Umeek jolaserako baliatzea.

6

Eraikinaren hormaren kontra tarima bat jartzea proposatu da, eszenatoki funtzioa izango lukeena, eta perimetroan esertzeko aukera emango lukena.



7

Pergolako espazio estaliaren alde honetan saskibaloia kanasta bakarra mantentzea proposatu da, planoan puntu beltz baten bidez adierazi den lekuan dagoena. Kanasta horren altuera berrikusi eta txikitu egin beharko litzateke, ikasle askorentzat gaur egun dagoena altuegia baita.

Toki honetan beraz, baloiarekin jolasteko aukera egoten jarraituko da, saskibaloira zehazki.

8

Pergolako espazio estaliaren alde honetan lurreko margoa berritzea proposatu da, irudi eta forma abstraktuen aldeko hautua eginez. Jolas espezifiko batera bideratutako irudiak marraztu beharrean, mugimendu irekiagorako eta jolasak asmatzeko aukera ematen duten formak hobetsi dira.



9

Lurreko margoa daukan gunearen perimetroan luzerako eserlekuak proposatu dira. Fatxadaren kontra kokatuko lirateke, eraikineraren sarrerarik ez dagoen horma zatietan.

Eserleku horiek jolasorduetan umeak esertzeko izango dira, gaur egun lurrean esertzen baitira. Baina horrez gain, umeak ekartzera eta umen bila datozen gurasoek itxaron dezaten baita ere.

Plazoleta

Plazoletaren berrantolaketarako elementu eta erabilera berriak proposatu dira. Antolaketa berria hurrengo espazio eta elementuek osatuko lukete:

- Iparraldean, sarreraren parean, jolaserako elementu finkorik gabeko espazio zabala, non baloiarekin jolastu daitekeen. Gune hau estaltzea proposatzen da.
- Plazoletaren erdian, "kiosko" funtzioa izango lukeen egurrezko harmaila-elementua.
- Hegoaldean HH 4-5 eta LH 1-2 ikasmailetakoko ikasleen jolasera bideratutako eremua.
- Plazoletaren eta inguruko kalearen arteko konexio puntuak iparraldeko eta egaldeko ixkinetan (geziez markatuak).
- Zuhaitzak eta landaredia plazoletaren perimetro osoan, eta hegoaldeko eremuan baita plazaren barrualdean ere.

Hurrengo orrialdeetan aipatutako espazio bakoitzaren azalpen espezifikoak jasotzen da.

10

Baloiarekin jolasteko eta korrika egiteko aukera ematen duen eremua izango da hau, inolako elementu finkorik izango ez duena. Jolas aktiborako gune hau toki konkretu honetan kokatzea erabaki da arrazoi ezberdinengatik:


- Baloiarekin jolasean, pilota ingurura joanez gero ez lituzkeelako gainontzeko eremuetako umeak molestatuko, harmailak babes funtzioa edukiko lukeelako.
- Jolasgaraia ez denean ere, interesgarria delako ikastolarako sarreraren parean eremu zabala eta irekia edukitzea jendea hemen pilatu ahal izateko.

Horrez gain, espazioren bat estaltzekotan, gune hau estaltzea da proposatzen dena. Elementurik gabeko gunea izanik, euria egunetan umeak biltzeko aukera emango luke, eta lehen aipatu bezala, itxarongune espazio bezala ere estalita egoteak sarrera gunea osagarrituko luke.

11


Plazoletako elementu zentral eta egituratzailea izango da hau, herriko plazetako kioskoen antzeko funtzioa eduki nahi duena: bertan egoteko eta jarduerak egiteko aukera ematen du, baloi-guneari muga jartzen dio gainontzeko espazioak baloiarengandik babestuz, eta gainera, plazoletaren eremu ezberdinei begiratzen dien harmaila gunea sortuko du.

Elementu mailakatu eta irregular bezala irudikatu da, bere lau aldeetara begiratzen duena, eta azalera eta zabalera ezberdinetako mailez osatua dagoena.



12

Toki honetan HH 4-5 urteko umeek eta LH 1-2 mailetako ikasleek jolasteko gune bat proposatu da, zoru biguna eta koloretsua daukana. eremu gora-beheratsu bat, igo eta jeisteko eta jolaserako elementu ezberdinak dituena.



13

Plazoletaren hego-ekialdeko eremu honetan plazaren inguruko kaletik plazoletara jeisteko lotura puntu bat proposatu da, eserlekuak eta zuhaitzak ere izango dituen.




Kota ezberdinen arteko lotune honetan, eserlekuak modu irregularrean kokatuko dira, eserlekuekin harreman txoko ezberdinak sortuz eta txoko horietan begetazioa txertatuz. Gaur egun plazaren barrualdera soilik begiratzen duten eserlekuen logikarekin apurtu nahi da eta elkarri begiratzen dioten harreman gune probatuagoak sortu nahi dira.




14

Plazoletaren perimetroaren ekialdeko tarte honetan gaur egun dagoen eserleku luze perimetrala edo antzekoa mandendu nahi da, kota ezberdintasuna aprobeitzatzeko interesgarria delako, eta gainera, baloidun gunera distantziatik begira esertzeko ere baliatu daitekeelako.

Plazoleta






Plazoleta



Frontoia eta pergolaren eremua



Frontoia eta pergolaren eremua



Iparraldeko patioa



Sarrera eremua



Tipi

Kanpo espazioen
eraldaketa
proposamena

2. DBHko kanpo
espazioak

2.1 Eremuaren definizioa

DBH eraikinaren inguruko kanpo espazioak bost eremu nagusitan banatzen direla esan dezakegu: berdeguneak eserlekuekin, futbol zelaia, saskibaloizelaia, eskubaloizelaia eta eraikinerko sarrera estalia.

Eremuen antolaketa eta erabilerari dagokionez, DBHko ikasle guztiek espazio guztiak erabil ditzakete modu librean eta aldi berean. Futbol zelaia da azpierzpiztuetan banatuta dagoen espazio bakarra, ikasmailen arabera lau espaziotan banatuta dagoelarik.



2.2 Eraldaketarako abiapuntua

Espazioen eraldaketa planteatzean, futbol zelaia, saskibaloia zelaia eta jada existitzen diren berdeguneak mantendu nahi direla hartu dugu kontuan. Gainera, egun jolasorduan egin daitezkeen hiru talde kirolak egiteko aukera ere mantendu nahi izan da.

2.3 Eraldaketarako erronkak

DBHko kanpo espazioen eraldaketarako planteatutako erronka nagusia hurrengoak izan da:
futbol zelaiaren besteko potentzia duen aisialdi espazio bat sortzea, mugitzeko, biltzeko eta lasai egoteko aukera ezberdinak eskaintzen dituen.

Erronka horretatik abiatuta, erronka espezifikoa formulatu ditugu espazioaren eraldaketa proposamenak bideratzeko:

1/ Mugimendu erdi-intentsoa

Intentsitate baxuko mugimendu-jarduerak egiteko aukera ematen duen espazio bat lortu nahi dugu, hau da, talde txiki edo ertainetan eman daitezkeen jarduera aktiboak ahalbidetzen dituen, baina ez daukatenak zertan taldean handietan gertatu eta ezta lehiren logikarekin. Egungo azpiegiturek eserita egoteko edo talde handietan kirol jarduera konpetitiboak egiteko aukera eskaintzen dute, eta bitarteko jarduerak egiteko aukera falta da.

2/ Berdeguneak

Berdeguneak erabiltzeko aukera ematen digun espazio bat lortu nahi dugu.

Gaur egun ez dago belarretan egoteko aukerarik zikin egoten delako eta ez dagoelako altzaririk. Gainera, belarguneak desaprobatuta daudela eta zuhaitz gutxi daudela ustute ikasleek.

3/ Bilkurarako guneak


Taldean biltzeko eta elkarrekin egoteko altzari interesgarri eta erosoagoak dituen espazio bat lortu nahi dugu.

Gaur egun dagoen eserleku kopurua urria da, eta ikasleak sarri lurrean eserita egoten dira eta baita bankoen bizkarralde eta beso-euskarrietan ere. Gainera, ikasleek faltan botatzen dituzte eserleku gehiago eta erosoagoak, bai kalean eta bai aterpean.

4/ Gune estalia

Estalpean dagoen gune atsegin bat lortu nahi dugu. Gaur egun kalean dagoen gune estali bakarra eraikinaren sarrerakoa da, eta euria denean txiki geratzen da, eserlekuak busti egiten dira eta iluna da. Gainera, ikasleek mahai eta eserlekudun estalpe atsegin bat botatzen dute faltan, eta epe laburrera, futbol zelaiako gradak erabili nahiko lituzkete euri egunetan. Jakinik hurrengo udan, eraikinaren obra egitean, behe solairua jolasorduan lasai egoteko gune bezala ahalbidetuko dela, gune estali berriak sortu nahi ditugu kalean ala daudenak hobetu?

2.4 Eraldaketa proposamena




Hurrengo orrialdeetan planoan irudikatutako elementu eta eremuetan proposatu dena azaltzen da. Zenbaki bakoitzeko, gune horretan planteatu den erabilera nagusia azaldu da, eta beharrezkoa izan denean, irudien bitartez antzerako elementuen edo espazioen erreferentziak gehitu dira.

1

Berdeguneak gehiago aprobetxatzeko helburuarekin eta taldeetan biltzeko espazio interesgarri eta erosoagoak sortzeko, U formadun eserlekuak proposatu dira jada badauden berdeguneetan txertatuta.

Horrez gain, berdegune irla berri bat sortzea proposatzen da, natu eremua zabaltzeko eta zementuzko sarrera eremua naturalizatzeko.



2

Aurreko proposamenaren ildo beretik, erdi-etzanda esertzeko eserlekuak ere proposatu dira ibaiaren parean dagoen berdegunean.





3

Eraikinaren fatxadaren kontra luzerako eserlekuak proposatu dira, eraikinak estalpe txiki bat egiten baitu, eta ikasleak hormaren kontra lurrean eserita egoten baitira.



4

Eserlekuak eta mahaiak dituen gune berri bat sortzea proposatu da, ikasleek jolasgaraietan hitz egin, lanak egin edo mahai jokoetara jolasean ibiltzeko.

5


Mugimendu erdi-intentsorako gune eta elementuak sortzeko erronkari erantzuteko helburuaz, kalistenia gune bat proposatu da. Horrelako gune batek jarduera fisikoa banaka, bikoteka edo talde txikietan egiteko aukera emango luke, lehiakortasunean oinarritzen ez den jarduera fisikoa hain zuzen ere.



6

Eremu honetan zegoen futbol zelaia erdian eskubaloira joatzen da gaur egun jolasgaraian. Eskubaloia mantentzeko baina patioan erabilera berriak txertatu ahal izateko, futbol zelaia kentzea proposatzen da, eta eskubaloikantxaren kokapena aldatzea. Modu horretara, berdegunearen eta eraikinaren artean espazioa irabaziko litzateke aurretik aipaturiko mahaien gunea eta kalistenia barrak jartzeko.




Sarrera eremua



Eskubaloi zelaiaren eremua



Berdeguneak





Tipi

tipigara.co

[@tipi_koop](https://twitter.com/tipi_koop)

kaixo@tipigara.co